

## AKTA

### Udalbatza eratzeko egindako Osoko Bilkura bereziarena

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2019-06-15 (04)  
**ORDUA:** 12:00 – 12:15  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

Alkatea: Luis Maria Egurrola Arakistain (EAJ/PNV)

Zinegotziak: Alexander Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Lander Fernandez Guenetxea (EAJ/PNV)  
Amaya Maria Larrañaga Ugarte (EAJ/PNV)  
Idoya Arrieta Arregui (EAJ/PNV)  
Luis Maria Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Isa Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Leire Markuerkiaga Olabe (EH BILDU)  
Garbiñe Idoeta Baskaran (EH BILDU)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementeria Otxandio

Bertaratu ezina arrazoitu du: Eneko Arrate Sololuze (EH BILDU)

#### **AZTERGAIAK:**

1.- Udalbatza berria eratzea eta Alkatea hautatzea.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legearekin bat etorrira, jasota utzi nahi da behar-beharrezkoa den testua baino ez dela aktan jaso. Bilkuran izandako eztabaida guztien xehetasunak grabatu egin dira eta grabazioa dokumentuaren parte izango da izango, soinu-artxibo gisa.

Markina-Xemeingo Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2019ko ekainaren 15ean, eguerdiko hamabietan, aktaren hasieran adierazitako zinegotzi hautetsiak bildu dira, lehenengo deialdian, Udalbatza berria eratzeko, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa betez. Zinegotzior egiaztatutunak (kredentzialak) eta nortasun agiriak egiaztatu eta bateraezintasun arrazioen, jarduera eta ondare-ondasunen aitortpenak aurkeztu izana frogatu ondoren, Udalkideen Interesen Erregistroan inskribatuko dira.

### **UDALBATZA BERRIA ERATZEA ETA ALKATEA HAUTATZEA**

Adin Mahaia osatu dute hautetsi zaharrenak eta gazteenak. Hau da, Amaya Maria Larrañaga Ugarte eta Lander Fernandez Guenetxea, hurrenez-hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak bidalitako egiaztagirien arabera. Mahaiburua Amaya Maria Larrañaga Ugarte izan da, bera zelako hautetsi zaharrena, eta idazkari lanak udaleko idazkari eta kontu-hartzaile Iratxe Rementeria Otxandiok bete ditu.

Segidan, Adin Mahaiak hasiera eman dio Udalbatza berria eratzeko bilkurari eta idazkariari eskatu dio ezarri beharreko legezko aginduak irakur zitzala. Idazkariak, Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 195 eta 196 artikulua eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege Araubideari buruzko Erregelamenduaren 36. artikulua irakurri ditu. Halaber, aditzera eman du, irakurritako azken artikuluko 2. atalean ezarritakoa betez, Udalbatza berriaren esku daudela, behar bezala prestatuta eta eguneratuta, honako hauen egiaztagiri edota aitortpenak; Udalbatzak dirutan duenarena eta dituen baloreena, bai udaleko Diruzaintzan eta bai Kutxa edo Banketxeetan egon daitezkeenak ere, hala nola, Udalbatzaren Ondasun-Zerrendarena.

Legezko aginduok irakurtzea amaitu duenean, idazkariak zinegotzi berrien egiaztatutunak (kredentzialak) eta nortasun agiriak egiaztatu ditu, Gernika-Lumoko Hauteskunde Batzordeak udaletxera bidalitako egiaztapenekin alderatuz, eta, Hauteskunde Araubide Orokorren Legearen 108. artikuluan ezarritakoa betez, hautetsiei apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuan aurreikusitako zina edo promesa hartu die, zinegotzi kargua hartzeak berekin dakartzan eginbeharrak fideltasunez bete dituztelako zina edo promesa. Adierazi du, baita ere, legeak ezarritako izapideak bete ondoren, Alkate izendatzen den zinegotziak berriro egin beharko duela zin.

Zinegotziek, legeak hala aginduta zin egin dute.

Ondoren, Idazkariak EH BILDUko zerrendaburuari zuzenean galdetzen dio, ea bere hautagaitza aurkezteko asmoarekin jarraitzen duen, eta Aitor Odiaga Garatek baietz erantzun dio.

Horrenbestez, eta kontuan izanda Toki Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege Araubideari buruzko Erregelamenduaren 102.3 artikuluan ezarritakoa, Alkatea aukeratzeko bozketa eskua jasota egin da, honako emaitza honekin: sei (6) boto EAJ/PNV alderdiko Luis Maria Egurrola Arakistainen alde, eta lau (4) boto EH BILDU alderdiko Aitor Odiaga Garateren alde.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 186 artikuluan ezarritakoaren arabera, Markina-Xemeingo Udalak 11 zinegotzi ditu, eta Alkatea zuzenean izendatzeko behar den legezko gehiengo osoa izateko 6 boto behar dira. Beraz, eta boto horiek jaso dituzenez gero, Luis Maria Egurrola Arakistain (EAJ/PNV) zerrendaburu izendatu dute Alkate.

Luis Maria Egurrola Arakistain jaunak, karguaz jabetu ondoren, zin egin du alkate karguak eskatzen dituen betebeharrak konplitu dituela.

---

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Gaur arte alkate izan den Juan Jose Txurruka Txurrukak Luis Maria Egurrola Arakistain alkate berriari aginte makila eman dio.

Egurrola jaunak hitza hartu du eta araudiak esaten duenarekin bat, eman dioten kargua onartzen duela adierazi du eta, beraz, Markina-Xemeingo alkate kargua onartzen duela eta zinegotzi kargua hartzean egindako zina berretsi du.

Ondoren, EH BILDUko zinegotzien bozeramale jardun duen Aitor Odiaga Garateri eman dio hitza, eta hark, lehenengo eta behin, esker oneko eta disposiziorako hitzak eskaini ditu.

Ondoren, Alkate jaunak, modu berean, legealdi honetarako konpromezua berretsi du.


Udalburuak batzarra amaitutzat eman du akta hasieran adierazitako eguneko goizeko hamabiak eta hamabost minutu direla. Eta bertan esandako guztia jasota geratzeko, idazkari jardun dudana honek akta hau egin eta ziurtatu dut.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 12:15EAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,

Luis Maria Egurrola Arakistain



markina-xemein  
udala

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,

Iratxe Rementería Otxandio



markina-xemein  
udala